

# ehbildu

**ZEBERIO**  
EHBZ INFOa 2021eko maiatza.  
Zure informaziorako.



## hamar urte baino ez.

### QUERER ES PODER

Martxoaren 26an Ohiko Udalbatza egin zen Zeberion. Bertan mintzatu zenaz aritu baino lehen, Udalbatza hasi baino lehenago bizi izan genuen egoera kezkarria jakinarazi nahi dizuegu: Udalbatzak publikoak dira, hau da, edozein pertsona sar daiteke Udalbatza aretora. Alkateak ukatu egin zien eskubide hori udaletxera hurbildu ziren zeberioztarrei. Aitzakia Covid-19ak eragindako pandemiak ekarri duen edukiera murrizketa izan zen. Zeberioko EH Bilduk argi du Udal Gobernuaren lana dela zeberioztar guztien eskubideak bermatzea eta irtenbideak aurkitzea bizi izaten ari garen ezohiko egoera honetan. Gainera, Udalbatza aurretik eta egoera bigarrenez gerta ez zedin, aurreko Udalbatzan ere zeberioztar bat kalean geratu baitzen, Zeberioko EH Bilduren Udal Taldeak idazkia erregistratu zuen Udaletxean Udalbatza edukiera handiagoko beste areto batean edo on-line egiteko, gure inguruko hainbat herritan jada egiten ari direna. Modu horretan eskubide guztiak bermatuko ziren, herritarrek parte hartu ahalko zuten Udalbatzetan eta gardentasunak pausu bat emango zuen aurrera.



Hala ere, **gure harridurarako, bigarrenez, zeberioztar bat kalean geratu behar izan zen Alkatearen aginduz.**

Egoerari buelta ematen saiatu ginen EH Bilduren zinegotziok baina autoritarismo erakustaldi batean (modu txarrak eta irainak barne) Alkateak argi eta garbi utzi zigun Udalbatzak berdin egingo zirela berak AGINTZEN eta ESATEN zuelako, beti ere EAJ/PNVko zinegotzien babesagaz. Zeberioko EH Bilduk gogor salatu nahi ditu Udal Gobernuaren modu txarrak, jarrera demokratiko falta eta gardentasun eza. Eta ozen diogu lanean jarraituko dugula gardentasuna eta zeberioztar guztien parte hartzea bermatzeko.

*A pesar de que los Plenos municipales son públicos, el equipo de gobierno se escuda en el aforo limitado de la sala y no permite la entrada a ningún zeberioztar. Ocurrió por primera vez en el penúltimo Pleno, y el equipo de gobierno no tomó ninguna medida para solucionarlo. Días antes del último Pleno (26 de marzo) el grupo municipal de EH Bildu de Zeberio recordó mediante un escrito lo acaecido y solicitó que se adoptaran medidas.*

**Lamentablemente, en un alarde de autoritarismo incompatible con un comportamiento democrático, se repitieron los hechos.**



Hauexek dira Udalbatzan joratu ziren gai nagusiak:

- **M8ko adierazpen instituzionala / Declaración institucional 8M**

M8ko adierazpen instituzionala Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta aho batez onartu zen. Ondorengo estekan deskargatu daiteke: <https://labur.eus/2021-M8>

Unanimidad en cuanto a la siguiente Declaración: <https://labur.eus/2021-8M>



- **Zeberio Emakume eta Gizonen berdintasunerako 2. Plana**

Planari baiezko botoa eman arren, gure ustez, **emakumeen parte hartze soziopolitikoaren benetan sustatu behar da**. Gainera Zeberio Emakumeek duten planaren ezagutza falta ez betikotzeko, informazioa zabaltzea behar da eta herritarrekin elkarlana sustatu. Diru publiko dextente gastatzen da halako lanak egiten eta garrantzitsua da herritarrek haren fruituez baliatzea.

*EH Bildu de Zeberio votó a favor del 2º Plan de Igualdad; sin embargo, creemos que hace falta fomentar de verdad la participación sociopolítica de las mujeres. También recordamos al equipo de gobierno que para evitar que dichas políticas no pasen desapercibidas en nuestro pueblo, se debería dar información y promover la participación ciudadana. Teniendo en cuenta la inversión de dinero público que requieren estos planes, es de recibo que la sociedad se beneficie de ese trabajo.*

- **Bideo-aktak Udalbatzetan erabiltzeko Zeberio EH Bilduren proposamena**

Zeberio EH Bilduk bideo-aktetara pasatzeko apustu sendoa egiten du. Egun, diru asko xahutzen da aktetan (itzulpenak egiten dira) eta, askotan, ez dute behar bezala islatzen Udalbatzetan jazotakoa (adierazpen gehiago daude ahozkoak baino, eta tonua, ironia eta abar, ez dago islatzerik). Gainera, grabaketa horrek zeberioztar guztioi Udalbatzak ikusi ahal izateko aukera emango liguke, zuzenean edo gerora.

*De nuevo insistimos en emplear las nuevas tecnologías para recoger las actas plenarias: video actas. Con ello se evitaría el gasto innecesario de dinero público que hoy se produce y, además, se ganaría en transparencia, al poder recoger fielmente las opiniones y expresiones vertidas en el Pleno.*

- **Diru publikoaren kudeaketa eskasa**

Zeberio EH Bilduren Udal Taldeak gogor salatu nahi du Udal Gobernuak diru publikoarekin egiten duen kudeaketa eskasa. Lotsagarria, joko kanpo deritzogu pandemia garai honetan, non pertsona asko gorriak ikusten ari diren, non murrizketak ezarri diren, non Covid-19ak ekarritako gaitz guztiei aurre egiteko guk proposatutako ekimenei bizkarra ematen zaien (ostalaritzari laguntzak, maskarak erosteko laguntzak...), non Udalaren hainbat zerbitzu desagertu diren (ludoteka, gaztelekuak, ...), 10.000 €tik gora gastatzea Ermitabarriko tabernaren handitze lanetan, esaterako. Lan horiek ez zuten inongo premiarik eta askoz garrantzitsuagoak diren beste gauza batzuetarako dirurik ez dagoela diote. Edo 5.500 € gastatzea Gabonetako argietan.



Ez diogu egindakoa txarto dagoela, baina bai erabat desegokia dela; izan ere, askoz estrategikoagoak diren beste eragile batzuentzat, Txubelasu Guraso Elkarte kasu, murrizketak baino ez daude. Ulertezina. Alkateak Zeberio ez dela herri aberatsa dio, eta egia da, baina, bistan denez, gauza batzuetarako dirua soberan du herriak.




*Queremos denunciar la nefasta gestión del dinero público por parte del equipo de Gobierno Municipal. Mientras se da la espalda a las diferentes propuestas realizadas por EH Bildu Zeberio para paliar los efectos de la pandemia, se gastan, por ejemplo, más de 10.000€ en reformas en la taberna de Ermitabarri, o 5.500€ en luces de navidad. No nos parece serio en estos momentos en los que hay que saber priorizar inversiones.*

## • Txubelasu guraso elkarteko diru-laguntza

Covid19ak ekarritako murrizketen eraginez, Txubelasu guraso elkarteak ezin izan du inolako jarduerarik antolatu urtero dituen gastuei aurre egiteko. Hala ere, 2020. urtean Udal Gobernuak diru-laguntza murriztu zion argudiatuta pandemia garaian ikasturtea laburragoa izan dela eta eskolaz kanpoko jarduera gutxiago egin direla.

Hori gutxi balitz, 2021. urtetik aurrera diru-laguntza jaso ahal izateko hitzarmen bat proposatu zion Udal Gobernuak. **Hitzarmen honetan 8.500€tik 6.000€ra murrizten zen diru-laguntza.** Udal Gobernuarekin izandako hainbat bileretan buru-belarri saiatu zen guraso elkarteko zuzendaritza, gutxienez aurreko urteetako baldintzak errekupeartzeko ahaleginetan, baina Udal Gobernuaren jarrera oso itxia izan zen.



Gauzak horrela, guraso elkarteak ezohiko batzarra deitu zuen Zeberioko eskolako guraso guztien artean, gaiaren inguruko informazioa zabaltzeko eta Udal Gobernuak proposatutako hitzarmena sinatu edo ez sinatzeko erabakia hartzeko. Gurasoen gehiengo zabal batek hitzarmena halako baldintzetan ez sinatzea erabaki zuen.

Voilà! Zorionez Udal Gobernuak akatsaz jabetuta atzera egin omen du azken unean.

*El Gobierno Municipal ha intentado reducir la ayuda económica anual aportada a Txubelasu gurasoen elkartea de 8.500€ a 6.000€ mediante la firma de un convenio. Txubelasu convocó una asamblea extraordinaria entre todos los padres y madres de alumnos de la escuela y por mayoría estos votaron en contra del acuerdo. Finalmente, parece ser que el equipo de Gobierno ha sabido rectificar.*

## • Ikasgela

**Martxoaren 8tik jarraitzen dute Zeberioko gazteak ikasgela barik.** Eta horrela jarraituko duela adierazi du Alkateak. Arrazoa, kasu honetan, ikasleek arautegia ez betetzea izan da, ordutegia zehazki. Hemendik aurrera, gaia konpontze aldera, gazteekin batzartuko dela dio Alkateak, bitartekaririk gabe (orain arte ikasle baten amak bitartekari lanak egiten zituen gazte eta Udal gobernuaren artean). Egoera honen aurrean zera adierazi nahi dugu:

**1 -** Abenduaren 18an gazteak ikasgela bila hasi ziren eta Udalak ikasgela zabaltzeko asmorik ez zeukala ikusita, beste herrietako ikasgeletara joaten hasi ziren. Hori ikusita, guraso batek (bitartekaria) bere izenean eskatu zuen eta lortu zuen ikasgela irekitzea, ordutegiari buruz hitz egin gabe. Guztiz zentsuragarria iruditzen zaigu, orain, bat-batean, pertsona horrek egindako lana gutxiestea eta baztertzea inongo azalpenik gabe.

**2 -** Ume batena iruditzen zaigu Udal Gobernuaren jarrera. Aste bat erabili barik egoteagatik (bere iritzi) eta egun batean 20:20an ixteagatik (bere iritzi) ikasgela-zerbitzu barik utzi du herria.

**3 -** Zeberioko Udal Gobernuak ez du inoiz sinetsi Zeberio ikasgela behar duela eta denbora luzea daramate ikasleek areto batetik bestera pasatzen ikasgela-proiektu egonkor bat aurkitu barik. Horrez gain, arazoak izan dituzte ikasleek azken asteotan "Hogarra" erabiltzeko. Izan ere, flexoak gordeta eta mahaiak pilatuta aurkitu dute aretoa hainbatetan. Alkateari Udalbatzan hori dela-eta galdetuta, hona hemen erantzun harrigarria: "flexoak Udaletxean eskatu behar dira, bestela desagertzen direlako". Arazoa da arratsalde ez dagoela inor Udaletxean flexoak banatzeko.

Ez du inoiz serio hartu eta edozein aitzakia topatzen ari da gazteei errua bota eta zerbitzua eteteko.



*No es de recibo que el equipo del PNV castigue a las y los jóvenes, que llevan desde el 8 de marzo sin poder acceder a la "sala de estudio". Nunca se han preocupado por cubrir sus necesidades y se valen de cualquier excusa para culpabilizar a los y a las usuarias. Asimismo, rechazamos la falta de consideración de quien dirige el Ayto. hacia una madre que ante la pasividad del Ayto. intermedió y gestionó para que las y los jóvenes pudieran disponer de dicha sala de nuevo, que con desprecio se dijo en el Pleno que prescindiría de ella y se reuniría directamente con los y las usuarias. EH Bildu de Zeberio solicita que así sea y que se atienda a las necesidades de los y las estudiantes y además se eviten los problemas de la sala (uso para otras actividades en horario de estudio, material recogido, cierre de local y otros sin previo aviso...)*

**Es una vergüenza que la juventud de este pueblo no disponga de una sala de estudio en condiciones y tenga que deambular de un pueblo a otro.**

### • **Gizarte-zerbitzuak herritarrengana hurbiltzeko Zeberioko EH Bilduren proposamena**

Gogor jotzen ari da pandemia osasun arloan, baita ekonomian ere. Eta zerbitzu sozialak dira, Udalen partetik, giza-ongizatea bermatzeko tresna eraginkorrenak, egoera zaurgarrian dauden pertsonen informazioa, arreta eta laguntza emate aldera. Baina Zeberioko EH Bildu ez da konformatzen zerbitzu horiek ematearekin.

**Pentsatzen dugu era aktiboan erabili behar direla baliabideak eta ezin garela egon “bezero”en zain.** Gizarte-zerbitzuetako langileak, beste eragile batzuekin elkarlanean (eskola, osasun zerbitzua,...) kapazak izan behar dira pertsona edo kolektibo horiek non dauden identifikatzeko eta haiengana jotzeko. Horrez gain, zerbitzuak herritarrengana heltzeko publizitate-kanpainak diseinatzea proposatzen dugu, herritarrok zerbitzua ezagut dezagun, eta, behar izanez gero, erarik egokienean erabil dezagun.



*La pandemia, como es sabido, además de a la salud, ha afectado a la economía de nuestras vecinas y vecinos. Queremos aprovechar la ocasión para recordaros que son los servicios sociales municipales la primera línea de atención a los y las zeberioztarras para atender sus necesidades de diversa índole. EH Bildu de Zeberio aboga por un servicio más activo, que sepa identificar las necesidades, que acuda allá donde las haya en lugar de esperar a que la población acuda a su puerta, y que se realicen campañas informativas al respecto. Necesitamos unos servicios sociales municipales de base bien dotados, con capacidad de previsión y nunca pasivos, sino despiertos.*

### • **Ettxerat - alderdien adierazpena (Zeberioko EAJ-PNV eta EH Bildu)**

Zeberioko EAJ-PNV eta EH Bilduk Ettxerat elkarteak sustatutako adierazpena sinatu dute euskal presoaren egoerari buruzkoa: <https://labur.eus/2021-ettxerat>

*Declaración promovida por Ettxerat con motivo de que se promueva, entre otros, una política penitenciaria normalizada a las personas presas vascas y no se mantenga la dispersión actual con el sufrimiento que ello conlleva para las personas condenadas y sus familias, menores en muchos de los casos.*



## **Gutxinaka bagoaz presoak euskal herriratzen!**